TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| TOLOSAKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE TOLOSA |
| GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPLEGUAREN SUSTAPENEKO AZPISAILA | SUBÁREA DE DESARROLLO ECONÓMICO Y PROMOCIÓN DEL EMPLEO. |
| 2023ko Deialdia, Tolosako Udalak helburu honekin Dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak arautzen dituena: Tolosako udalerrian eta Apattaerrekan kokatuta dauden eta gehienez ere 50 langile dituzten enpresen garapen esperimentalei, prototipoen egintzari eta soluzio edota zerbitzu berritzaileei bultzada ematen dieten proiektuak, eta halaber, prototipo-soluzio eta/edo zerbitzu horien balioztapena egitea. Dirulaguntza horiek norgehiagokako erregimenaren bidez emango dira. | Convocatoria para el año 2023 del Ayuntamiento de Tolosa para la concesión de subvenciones destinadas a la realización de proyectos que den impulso a los desarrollos experimentales, prototipado y de soluciones o servicios innovadores, y a su vez, la validación de las soluciones del prototipado y servicios, para empresas radicadas en el ámbito municipal de Tolosa y Apattaerreka, con 50 o menos trabajadoras y trabajadores, mediante el procedimiento de régimen de concurrencia competitiva. |
| **1. artikulua. Oinarri espezifikoak arautzen dituen deialdiaren xedea.** | **Artículo 1. Objeto de la convocatoria reguladora de las presentes subvenciones.** |
| Deialdi honen xedea Tolosako Udalak helburu honetarako dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak arautzea da: Tolosako udalerrian eta Apattaerrekan kokatuta dauden eta gehienez 50 langile dituzten enpresen garapen esperimentalei, prototipoen egintzari eta soluzio edo zerbitzu berritzaileei bultzada ematen dieten proiektuak, eta halaber, prototipo-soluzio eta / edo zerbitzu horien balioztapena egitea. Dirulaguntza horiek norgehiagokako erregimenaren bidez emango dira. | El objeto de la presente convocatoria es regular el conjunto de subvenciones a otorgar por el Ayuntamiento de Tolosa, para la realización de proyectos que den impulso a los desarrollos experimentales, prototipado y de soluciones o servicios innovadores, y a su vez, la validación de las soluciones del prototipado y servicios, para empresas radicadas en el ámbito municipal de Tolosa y Apattaerreka con 50 o menos trabajadoras y trabajadores, mediante el procedimiento de régimen de concurrencia competitiva. |
| Parte-hartzea Tolosako Udalaren dirulaguntzen emakidarako ordenantza espezifiko arautzailearen bidez izapidetuko da, garapen esperimentalak, prototipoen egintzari eta soluzio edota zerbitzu berritzaileak sustatzen dituzten proiektuetarako daukana. Enpresek 50 langile edo gutxiagokoak izan behar dute eta Tolosan edo Apattaerrekan kokaturik egon. Dirulaguntza horiek norgehiagokako erregimenaren bidez emango dira etaUdalaren Osoko Bilkurak, 2022ko | El acceso se tramitará de conformidad con la ordenanza específica reguladora para la concesión por parte del Ayuntamiento de Tolosa de subvenciones para la realización de proyectos que den impulso a los desarrollos experimentales, prototipado y de soluciones o servicios innovadores, y a su vez, la validación de las soluciones del prototipado y servicios, para empresas radicadas en el ámbito municipal de Tolosa y Apattaerreka con 50 o menos trabajadores y trabajadoras, mediante el |

| | |
|---|---|
| azaroaren 18ko Osoko Bilkuran onartutako ordenantzan oinarrituko dira (46. zk. GAO). | procedimiento de régimen de concurrencia competitiva, basándose en la Ordenanza aprobada por el Pleno municipal el 18 de noviembre de 2022 (BOG nº46) |
| Dirulaguntza hau bateragarria izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazio arteko erakundeetatik datozenekin, kalterik egin gabe beste dirulaguntza horien araudiak horri buruz agindu dezakeenari. | Esta subvención será compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes. |
| Dirulaguntza lerro hau 2023-2025 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatua dago, Udalbatzak, 2022ko abenduaren 15ean eginiko Osoko Bilkuran onartua, eta GAOn 2023ko otsailaren 1ean argitaratua (21 zk.). Dirulaguntzen Plan Estrategiko horretan zehazten dira zein helburu eta ondorio iritsi nahi diren dirulaguntza hau aplikatuta, zein diren horiek lortzeko epea, aurreikusitako kostuak eta bere finantzaketa iturriak, baina, betiere, aurrekontu egonkortasuneko helburuak betetzeko baldintzarekin. | Esta línea subvencional está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa 2023-2025, aprobado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 15 de diciembre de 2022 y publicado en el BOG nº 21 de 1 de febrero de 2023. En dicho Plan Estratégico de Subvenciones se detallan los objetivos y conclusiones que se pretenden alcanzar con la aplicación de esta subvención, el plazo para su consecución, los costes previstos y sus medidas de financiación, siempre condicionados al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria. |
| **2. artikulua. Enpresa onuradunek Dirulaguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak.** | **Artículo 2. Requisitos que deben reunir las empresas beneficiarias para obtener la subvención.** |
| Baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek eta ondasun-erkidegoek jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek: | Podrán acceder a estas subvenciones las personas físicas o jurídicas y comunidades de bienes que cumplan las siguientes condiciones: |
| • Tolosan edo Apattaerrekan lantokiren bat izatea. | • Contar con algún centro de trabajo en el ámbito municipal de Tolosa o Apattaerreka. |
| • Azken 6 hilabeteetan 50 langile edo gutxiago izatea. | • Contar con una plantilla igual o inferior a 50 personas en los últimos 6 meses. |

| | |
|---|---|
| • Enpresak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (EJZ) alta emanda egon behar du.<br><br>• Zerga-betebeharrak egunean izatea Ogasunarekin, Gizarte Segurantzarekin eta Tolosako Udalarekin. | • La empresa tiene que estar dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas(IAE).<br><br>• Estar al corriente de las obligaciones tributarias tanto con Hacienda como con la SS y el Ayuntamiento de Tolosa. |
| Laguntza hauen onuradun ez dira izango aholkularitza-, kontsulta- eta giza baliabide-zerbitzuak (GGBBak) ematen dituzten enpresak.<br>Ez ta ere,<br><br>1. Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.<br><br>2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.<br><br>3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.<br><br>4.- Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio anitzeko faktoreengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei | Quedarán excluidas, como beneficiarias de estas ayudas, las empresas que presten servicios de asesoría, consultoría y recursos humanos (RRHH).<br>Quedarán también excluidas:<br><br>1. Las personas físicas o jurídicas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos vulneren el principio de igualdad de mujeres y hombres.<br><br>2. Las personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa, laboralmente o penalmente de forma firme por haber vulnerado el derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo.<br><br>3. Entidades o empresas que no cumplan los requisitos establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para una vida libre de violencia machista contra las mujeres.<br><br>4.- Tampoco serán objeto de subvención las actividades que supongan discriminación por razón de sexo o por factores de discriminación múltiple, de mujeres o grupos de mujeres, cuando concurran otros factores que puedan dar lugar a situaciones de discriminación, tales como la raza, el color, el origen étnico, la lengua, la religión, las opiniones políticas o de otra índole, la pertenencia a |

| | |
|---|---|
| buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa. | una minoría nacional, el patrimonio, el lugar de nacimiento, la discapacidad, la edad, la orientación sexual, la identidad de género, la expresión de género, el proceso migratorio, el estatus de refugiado, la cultura, el origen rural, la situación de exclusión social, la situación de seropositividad, la familia monoparental, la configuración familiar o cualquier otra condición o circunstancia personal, social o administrativa. |
| **3. artikulua. Eskabideak aurkezteko modua, lekua eta epea.**<br><br>**Modua:**<br>Eskabideak deialdi honi erantsitako eskabide-ereduaren arabera aurkeztu beharko dira, deialdi honen 8. artikuluan eskatutako dokumentazioarekin batera.<br><br>Eskabideak zuzenean edo ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabiliz egiaztatzen duten pertsonek sinatuko dituzte.<br>Eskatzaileak bere datu pertsonalak kontsultatzeari uko egiteko eskubidea baliatu ahal izango du, eskabide-ereduan berariaz adierazita. Interesdunak bere datu pertsonalak kontsultatzeari uko egiteko eskubidea baliatzen badu, aurkakotasun hori justifikatu beharko du.<br><br>**Lekua**:<br>Eskabidearen eta dokumentazio osagarriaren aurkezpena telematikoki Tolosako Udaleko erregistro elektronikoan egingo da, (ez da onartzen posta elektronikoz bidalitako eskaerarik). Hala ere, eskabideen aurkezpena arautzeko, Administrazio-Prozeduraren 2015/39 Legeko 16.4 artikuluan xedaturikoa hartuko da aintzat.<br><br>**Aurkezteko epea:**<br>Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau | **Artículo 3. Forma, lugar y plazo de presentación de solicitudes.**<br><br>**Forma:**<br>Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud que se acompaña a esta convocatoria junto con la documentación requerida en el Art. 8 de la presente convocatoria.<br>Las solicitudes se suscribirán directamente o por personas que acrediten su representación por cualquier medio válido en derecho.<br>La persona solicitante podrán ejercer su derecho de oposición a la consulta de sus datos personales poniéndolo de manifiesto de forma expresa en el modelo de solicitud. En el caso de que el interesado ejercite su derecho de oposición a la consulta de sus datos personales, estará obligado a justificar dicha oposición.<br><br>**Lugar:**<br>La presentación de la solicitud así como de la documentación complementaria se realizará en el registro electrónico del Ayuntamiento de Tolosa, por vía telemática (el uso del correo electrónico no es un medio válido para la presentación de solicitudes). En cualquier caso la presentación de solicitudes se regulará de acuerdo con el artículo 16.4 de la ley 2015/39 de Procedimiento Administrativo Común.<br><br>**Plazo de presentación:**<br>El plazo de presentación de las solicitudes |

| | |
|---|---|
| Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 30 egun naturaleko epean amaituko da. | se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletin Oficial de Gipuzkoa y finalizará en el plazo de 30 días naturales a partir del mismo |
| **4. artikulua: Egikaritzeko epea eta ekintzen justifikazioa** | **Artículo 4: Plazo de ejecución y justificación de las actuaciones** |
| **Egikaritzeko epea:** | **Plazo de ejecución**: |
| Diruz lagunduko diren ekintzek urte naturalaren barnean hasi behar zuten, 2023eko urtarrilaren 1etik aurrera, eta amaituko dira urte bereko abenduaren 31rako. | Las actuaciones objeto de subvención deben iniciarse dentro del año natural, a partir del 1 de enero de 2023, y deberán concluir para el 31 de diciembre del mismo año. |
| **Justifikazioa**:<br>Justifikazioa aurkezteko epea hilabetekoa izango da, proiektua egiteko epea amaitzen denetik hasita, Tolosako Udalaren eta haren erakunde publikoen dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzan ezarritakoarekin bat etorriz, eta beranduenera ere 2024ko urtarrilaren 31n bukatuko da. | **Justificación:**<br>El plazo para presentar la justificación será de un mes desde la finalización del plazo para la realización del proyecto, de conformidad con lo establecido en la Ordenanza reguladora de subvenciones de Ayto. de Tolosa y sus Organismos Públicos, y en todo caso el 31 de enero del año 2024. |
| **5. artikulua: Dirulaguntzak emateko prozedura.**<br>Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da; Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitakoa. | **Artículo 5. Procedimiento de concesión.**<br>El Procedimiento de concesión de la subvención será en régimen de concurrencia competitiva, previsto en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y de sus Organismos Públicos. |
| **6. artikulua. Proiektuak baloratzeko irizpide eta balioespena.** | **Artículo 6. Criterio y valoración de los proyectos.** |
| Proiektuak era honetan baloratuko dira: | Los proyectos se valorarán de la siguiente manera: |
| A) Proiektuaren justifikazio-memoria, 10. artikuluan agertzen diren atalak sartuta dituela: 25 puntu. | A) Memoria justificativa del proyecto que incluya los apartados especificados en el artículo 10: 25 puntos. |
| B) Baloratuko da Proiektuak ze lotura duen Euskadiko Zientzia eta Teknologiako | B) Se valorará la relación del proyecto con el Plan Vasco de Ciencia y Tecnología, |

| | |
|---|---|
| Planarekin, eta zehazki, lehentasunezko arlo eta teknologiekin: 15 puntu.<br>• Biozientzia eta Osasuna.<br>• Energia.<br>• Fabrikazio aurreratua.<br>• Elikadura.<br>• Ekosistemak.<br>• Giza habitata.<br>• Industria kultural, sortzaile eta digitalak. | más en concreto en las áreas y tecnologías prioritarias: 15 puntos.<br>• Biociencia y Salud.<br>• Energía.<br>• Fabricación avanzada.<br>• Alimentación.<br>• Ecosistemas.<br>• Hábitat Humano.<br>• Industrias culturales, Creativas y Digitales. |
| C) Proiektuak eragiten du enpresaren lehia-hobekuntzan, produktu berriak sortuta edo merkatu berrietan sartuta: 10 puntu. | C) Que el proyecto incida en la mejora competitiva de la empresa con la creación de nuevos productos o acceso a nuevos mercados: 10 puntos. |
| D) Proiektuak eragiten du enpresaren lehia-hobekuntzan prozesuetan eta/edo bere produktuen hobekuntzan: 10 puntu. | D) Que el proyecto incida en la mejora competitiva de la empresa en procesos y/o en la mejora de sus productos: 10 puntos. |
| E) Proiektuaren alderdi berritzailea: 13 puntu. | E) Factor innovador del proyecto:13 puntos. |
| F) Proiektuaren plangintza: 6 puntu. | F) Planificación del proyecto: 6 puntos. |
| G) Proiektuaren kalitatea, behar diren baliabideen eta proposatutako helburuen arteko koherentzia: 10 puntu. | G) Calidad de la propuesta, coherencia entre recursos necesarios y objetivos propuestos: 10 puntos. |
| H) Proiektuak genero ikuspegia kontuan hartzea: 5 puntu. | H) Incorporación de la perspectiva de género en el proyecto: 5 puntos. |
| I) Bai Euskarari edo Bikain ziurtagiria: 3 puntu. | I) Certificación Bai Euskarari o Bikain: 3 puntos. |
| J) Plantillan aldi-baterako kontratuak % 20 baino gutxiago izatea: 3 puntu. | J) Que el número de contratos temporales en plantilla sea inferior al 20%: 3 puntos |
| **7. artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa.** | **Artículo 7. Cuantía máxima de la subvención.** |
| 2023. urterako 15.000 euroko kreditua ezarri da 1100.481.01.430.00 partidaren kargura. | Para el año 2023 se ha establecido un crédito de 15.000 euros, a cargo de la partida 1100.481.01.430.00 |
| Eskatzaile bakoitzari eman dakiokeen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, deitutako zenbatekoaren barruan, ezingo da izan proiektuaren kostuaren % 75 baino handiagoa, ezta hiru mila eurotik (3.000,00 | El importe máximo de la subvención que puede otorgarse a cada solicitante, dentro de la cuantía convocada, no superará el 75 % del coste del proyecto, ni sobrepasará los tres mil euros (3.000,00 €) de |

| | |
|---|---|
| €) gorakoa ere.<br><br>Puntuaren balioa honela kalkulatuko da: ezarritako dirulaguntzaren zenbateko osoa zati onartutako eskabideen multzoari emandako puntuak.<br><br>Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da. Lehen zatia emandako dirulaguntzaren % 50 izango da; eta bigarren zatia emango da azkenean, Tolosako Udalak dirulaguntzaren onuraduna den enpresak aurkeztutako justifikazioa ontzat ematen duenean. Beti ere, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 8.b) artikuluan eta 9.ean ezarritakoaren arabera egiten bada. | subvención.<br><br>El valor del punto será el resultado de dividir el importe total de la subvención establecida entre los puntos asignados al conjunto de las solicitudes admitidas.<br><br>La subvención se abonará en dos partes. Una primera parte, que supondrá un 50 % de la subvención concedida, y una segunda parte final que quedará condicionada a la aprobación por el Ayuntamiento de Tolosa de la justificación presentada por la empresa beneficiaria de la subvención y, que en todo caso, deberá realizar conforme a la forma establecida en los artículos 8 b) y 9 de la Ordenanza municipal de subvenciones. |
| **8. artikulua. Dokumentazioa.**<br>Proiektua onartua era finantzatuta izan dadin, enpresa interesaduank honako dokumentazio hau aurkeztu behar du:<br><br>1. Eskaera-imprimakia, behar bezala beteta.<br><br>2. Diruz lagundu behar den proiektuaren memoria.<br>3. Proiektuaren aurrekontua.<br><br>4. Gizarte Segurantzak egindako lan bizitzaren txostena eta kontratu finkoen kopurua zehazten duen enpresaren ziurtagiria.<br><br>5. Hala badagokio, BAI EUSKARARI eta/edo BIKAIN ziurtagiria.<br><br>Memoriak datu hauek jaso behar ditu:<br><br>1. Proiektuaren izena.<br>2. Enpresaren datuak (Izena, jarduera, langile kopurua, helbidea.)<br>3. Enpresaren jardueraren deskripzio laburra eta beraren historiaren laburpena.<br>4. Egin beharreko lanaren deskripzio | **Artículo 8. Documentación.**<br>Para la aceptación y financiación del proyecto, la empresa interesada deberá presentar la siguiente documentación:<br><br>1.- Impreso de solicitud debidamente cumplimentado.<br><br>2.- Memoria del proyecto a subvencionar<br><br>3.- Presupuesto del proyecto.<br><br>4.- Informe de vida laboral expedido por la Seguridad Social junto con el certificado de la empresa especificando número de contratos fijos en plantilla.<br><br>5- En su caso, certificado BAI EUSKARARI y/o BIKAIN.<br><br>La memoria, deberá incluir los siguientes datos:<br><br>1. Nombre del proyecto<br>2. Datos de la empresa (Nombre, actividad, Nº de trabajadores/as, ubicación.)<br>3. Breve descripción de la actividad que desarrolla y resumen histórico de la empresa.<br>4. Breve descripción del trabajo a |

| | |
|---|---|
| laburra. Justifikazioa eta egokitasuna: motibazioa, beharra eta aukera. | realizar. Justificación y pertinencia: motivación, necesidad y oportunidad. |
| 5. Proiektuaren helburu orokorra eta helburu zehatzak. | 5. Objetivo general y objetivos específicos del proyecto. |
| 6. Proiektuak ze lotura duen Euskadiko Zientzia eta Teknologiako Planarekin eta, zehazki, lehentasunezko arlo eta teknologiekin, alegia, ordenantza espezifiko arautzailearen 5.b artikuluan adierazitakoak (GAO, 160 zk., 2018ko abuztuaren 21ekoa). | 6. Posible encaje del proyecto con el Plan Vasco de Ciencia y Tecnología, más en concreto en las aŕeas y tecnologías prioritarias, indicadas en el artículo 5.b. de la ordenanza específica reguladora (BOG nº160 de 21 de agosto de 2018). |
| 7. Egin beharreko lanaren arrazoiketa eta zioak, adierazirik zergatik jotzen den lan esperimentaltzat, prototipo egintzatzat eta soluzio edo zerbitzu berritzailetzat, eta halaber, prototipo-soluzio eta/edo zerbitzu horien balioztapena enpresarentzat. | 7. Argumentación y motivos del trabajo a realizar, argumentando por qué considera como trabajo experimental, prototipado y de soluciones o servicios innovadores, y a su vez, la validación de las soluciones del prototipado y servicios para la empresa. |
| 8. Proiektuaren abiapuntua eta haren bidez zein emaitzetara iritsi nahi den. | 8. Punto de partida así como mejoras y resultados a alcanzar por medio de dicho proyecto. |
| 9. Proiektua garatu eta amaitzeko ze baliabide behar diren. | 9. Recursos necesarios para el desarrollo y finalización del proyecto. |
| 10. Ebidentzia objektiboak neurtu ahal izateko proiektuaren eraginkortasuna eta aprobetxamendua, eta proiektuaren balidazioa. | 10. Evidencias objetivas para poder llegar a medir la eficiencia y el aprovechamiento del proyecto, así como la validación del proyecto. |
| 11. Genero ikuspegia txertatu izanaren justifikazioa, eta BAI EUSKARARI eta/edo BIKAIN ziurtagiria. | 11. Justificación de la incorporación de la perspectiva de género y, en su caso, certificados BAI EUSKARARI y/o BIKAIN. |
| 12. Lan egutegia, faseak eta zereginak. | 12. Calendario de trabajo, fases y tareas |
| 13. Aurkeztutako proiektuaren aurrekontu zehatza, aurreikusitako lan orduak zehaztuta. | 13. Presupuesto detallado del proyecto presentado, especificando las horas de trabajo estimadas. |
| b) Behin proiektua amaituta, gastuen zuriketarako: | b) Una vez finalizado el proyecto para justificar los gastos: |
| 1. Zuriketarako memoria, egindako jardueren eta lortutako emaitzen adierazpena. | 1. Memoria justificativa, indicación de las actividades realizadas y los resultados obtenidos. |
| | 2. Una relación detallada de otros |

| | |
|---|---|
| 2. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehaztu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazita.<br>3. Aplikatu ez diren soberakinak eta horietatik ateratzen diren interesak itzuli direla dioen ordainketa gutuna.<br>4. Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuak; horiei egindako ordainketen egiaztagiriak gehituko zaizkie.<br>5. Balantzea.<br>6. Kontu zurigarria. | ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.<br>3. Carta de pago del reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.<br>4. Las facturas y los restantes documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, a los que se unirá la documentación acreditativa de los pagos realizados.<br>5. Balance.<br>6. Cuenta justificativa. |
| **9. artikulua: Justifikatzeko kontu erraztua.**<br><br>Dirulaguntza justifikatzeko justifikazio kontu erraztua erabiliko da.<br><br>1. Organo emaileak dirulaguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratuta. Dagokion deialdian zehaztuko da zein den egiaztatu beharreko elementu-kopurua, ondoren adierazten diren mugak errespetatuta:<br><br>1.1. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren 100eko 25 gainditzen duten egiaztagiri guztiak begiratuko dira.<br><br>1.2. Gainerako frogagirietatik, gutxienez populazio guztiaren elementu kopuruarekiko honako ehuneko hau duten elementuen lagin bat egiaztatuko da:<br><br>– Egiaztagiriak hamar edo hamar baino gehiago badira: 100eko 100.<br><br>– Egiaztagiriak hamar baino gehiago eta hogei edo hogei baino gutxiago | **Artículo 9. Cuenta justificativa simplificada.**<br><br>Para la justificación de esta subvención se utilizará la cuenta justificativa simplificada.<br><br>1.- El órgano concedente comprobará una muestra de justificante de gasto que permita obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención. La respectiva convocatoria determinará el volumen de elementos a comprobar respetando los límites que a continuación se indican:<br><br>1.1. Se comprobarán todos los justificantes que superen individualmente el 25 por 100 del importe de la subvención concedida.<br><br>1.2 Del resto de los justificantes se comprobará una muestra de elementos que al menos suponga el siguiente porcentaje respecto del número de elementos de la población total:<br><br>- Si el número de justificantes fuera inferior o igual a diez: 100 por 100.<br><br>Si el número de justificantes fuera superior a diez e inferior o igual a veinte: 70 por 100. |

| | |
|---|---|
| badira: 100eko 70.<br><br>- Egiaztagiriak hogei baino gehiago eta berrogeita hamar edo berrogeita hamar baino gutxiago badira: 100eko 40.<br><br>- Egiaztagiriak berrogeita hamar baino gehiago eta ehun edo ehun baino gutxiago badira: 100eko 30.<br><br>- Egiaztagiriak ehun baino gehiago badira: 100eko 20.<br><br>2. Laginaren hautaketa ausazkoa dela bermatzeko, honoko hautapen-prozedura honi jarraituko zaio:<br><br>2.1. Populazioa osatzen duten elementuen kopurua zehaztuko da, eta kopuru horretatik kanpo utziko dira beren kopurua dela-eta begiratuko direnak.<br><br>2.2. Egiaztagiriei zenbakia jarriko zaie justifikatzeko kontuan pertsona onuradunak aurkeztu duen gastuen zerrenda sailkatutako hurrenkeraren arabera.<br><br>2.3. Zehaztuko da zein den hautatu beharreko lagina osatuko duten egiaztagirien kopurua, dagokion deialdian ezarritakoaren arabera.<br><br>2.4. Guztizko populazioa osatzen duten elementuen kopurua lagineko elementuen kopuruarekin zatituta ateratzen den zatidura lortuko da, dezimalak hurbileneko zenbaki osora biribilduta.<br><br>2.5. Laginaren lehen elementua hautatuko da, kalkulatutako zatiketaren emaitzaren arabera.<br><br>2.6. Laginaren gainerako elementuak zehaztuko dira aplikaturik progresio aritmetiko bat, zeinaren arrazoia kalkulatutako emaitzaren berdina den.<br><br>2.7. Gastu-frogagirien lagina osatzen | Si el número de justificantes fuera superior a veinte e inferior o igual a cincuenta: 40 por 100.<br><br>- Si el número de justificantes fuera superior a cincuenta e inferior o igual a cien: 30 por 100.<br><br>- Si el número de justificantes fuera superior a 100: 20 por 100.<br><br>2.- Para garantizar la aleatoriedad en la selección de la muestra se seguirá el siguiente procedimiento de selección:<br><br>2.1.- Se determinará el número de elementos que conforman la población, excluyendo aquellos que por razón de su importe vayan a ser objeto de comprobación.<br><br>2.2.- Se numerarán los justificantes conforme al orden de la relación clasificada de gastos aportada por la persona beneficiaria en la cuenta justificativa.<br><br>2.3.- Se determinará el volumen de justificantes que conformarán la muestra a seleccionar, de conformidad con lo establecido en la respectiva convocatoria.<br><br>2.4.- Se obtendrá el cociente resultante de dividir el número de elementos que conforman la población total entre el número de elementos de la muestra, redondeando los decimales al número entero más próximo.<br><br>2.5.- Se seleccionará aleatoriamente el primer elemento de la muestra según el cociente calculado.<br><br>2.6.- Los restantes elementos muestrales se determinarán aplicando una progresión aritmética de razón igual al cociente calculado.<br><br>2.7.- Para la adecuada justificación de los gastos que constituyen la muestra de |

| | |
|---|---|
| duten gastuak behar bezala justifikatzeko, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak aurkeztu beharko dira, dagokion zerrendan sartuz. Agiri horiei erantsiko zaie gastua ordaindu izanaren dokumentazioa. Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren arabera hurrenez hurren ordenatuta. | justificantes de gasto, deberán presentarse facturas y demás documentos de valor o eficacia administrativa para el tráfico jurídico mercantil, que deberán estar incluidos en la relación correspondiente. A dicha documentación se acompañará la documentación del pago del gasto. Estos documentos originales se presentarán ordenados respectivamente por el número de orden asignado en la relación numerada. |
| **10. artikulua. Organo eskudunak, dirulaguntza emateko prozedura instruitu, balioesteko eta ebazteko**.<br><br>- **Instrukzioa**.<br><br>Emakida honen prozeduraren jardunbidea Tolosako Udalaren Garapen Ekonomiko eta Enpleguaren Sustapenerako Azpisailari dagokio, zeinak betetako espedienteen ebaluazioa eta azterketa egin ondoren, eta 2023. urterako dagoen aurrekontua bukatu arte, dagozkion txostenak egingo dituen eta egindako ebaluazioaren emaitzak zehaztu haietan.<br><br>**- Balioespena:**<br>Herritarren arloko informazio-batzordeari dagokio eskabideak baloratzea, saileko arduradunak emandako txostenean oinarrituta. Balorazio era ebazpen-proposamena organo eskudunari aurkeztuko zaizkio, honek onar ditzan.<br><br>**- Ebazpena:**<br><br>Zinegotzi delegatuak egingo du, une bakoitzean Udalaren antolaketa administratiboan indarrean dauden eskumenen eta eskuordetzen arabera. | **Artículo 10. Órganos competentes para la instrucción, valoración y resolución del procedimiento de concesión de la subvención.**<br><br>**- Instrucción**<br><br>La instrucción del procedimiento de concesión de estas subvenciones corresponderá al Subárea de Desarrollo Económico y Promoción del Empleo del Ayuntamiento de Tolosa, que tras la evaluación y examen de los expedientes completados y hasta el agotamiento del crédito disponible de conformidad con el presupuesto municipal para el ejercicio 2023, emitirá los preceptivos informes en los que se concretará el resultado de la evaluación efectuada.<br><br>**Valoración:**<br>Corresponderá a la comisión informativa de Ciudadanía la valoración de solicitudes, que se basará en el informe emitido por la persona responsable del departamento**.** Dicha valoración y propuesta de concesión se someterá al órgano competente para su aprobación.<br><br>**- Resolución:**<br><br>La resolución del procedimiento de concesión corresponderá a la concejala delegada, conforme a las competencias y eventuales delegaciones vigentes en cada momento en la organización administrativa del Ayuntamiento. |

| | |
|---|---|
| **11. artikulua. Ebazpenaren edukia eta jakinarazteko epea.**<br><br>Dirulaguntza emateko ebazpenak adierazi beharko du zer enpresari ematen zaion eta zer zenbateko duen.<br>Prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea gehienez ere 6 hilabetekoa izango da, eskabidea egin den egunetik kontatuta, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 25.5. artikuluan ezarritakoaren arabera. | **Artículo 11. Contenido y plazo en que será notificada la resolución.**<br><br>La resolución de concesión deberá expresar la empresa beneficiaria a la que se le otorga la subvención y su cuantía.<br>El plazo máximo para la resolución y notificación del procedimiento será de 6 meses desde la fecha de solicitud, de acuerdo con el artículo 25.5 de la Ordenanza reguladora de subvenciones de Ayto. de Tolosa y sus Organismos Públicos. |

**Tolosa, 2023ko maiatzak 11.**

**ZINEGOTZI DELEGATUA**

**Begoña Tolosa Mendia**